

Leku hau zabalik duzu zure ekitaldien berri emateko

kontzertuen agenda

Abisua astearte eguerdiko 14:00ak baino lehen eman ezazu, arren
Tel.: 943 30 02 22 / Faxa: 943 30 02 55
E-posta: barkatu_ama@egunkaria.com

Osteguna 26

- ATARRABIA • **Porkoipa**. The Indian garagardotegian, 20:00etan.
- BANYOLES (GIRONA) • **Skalariak**. Unibertsitate politetnikoan.
- BILBO • **Standstill** eta **Same Old**. Bilborock aretoan, 21:30ean. 6 euro.
- **The Shining** eta **Heike**. Azkena aretoan, 20:00etan. 12 / 14 euro.
- DONOSTIA • **P3Z**. Etxekalten, 00:00etan.
- GASTEIZ • **La Familia Valera Miranda**. Azkena aretoan.
- GIRONA • **Skalariak**. Unibertsitate politetnikoan, 01:00etan.
- IRUÑEA • **Covering Them**. Gallipot garagardotegian, 23:30ean.
- LEZO • **Opus Dead** eta **Karne Cruda**. Lobato etxean, 21:00etan.

Ostirala 27

- AIZARNAZABAL • **Akelarre**. 23:30ean.
- ARNEDO (ERRIOXA) • **Pateando Porkeria**, **Astopituak**, **Estigiä** eta **Pledge Alliance**. La Cuesta zentro sozialean (La Quincalla izandakoa), 00:00etan.
- BILBO • **Hegalka**. Kafe Antzokian, 22:00etan. 6 euro.
- **Cujo**, **John Wayne** eta **McEnroe**. Azkena aretoan.
- **Aspid** eta **Last Prophecy**. Bilborock aretoan, 22:00etan. 8 / 10 euro.
- **Leonardo Jaramillo**. Sarea gunean.
- CALAF (BARTZELONA) • **Marea** eta **Su Ta Gar**. Kiroldegian, 21:30ean.
- DONOSTIA • **Munich**. Etxekalten.
- GASTEIZ • **Inadaptats**. Gaztetxean.
- LAUDIO • **Igor Arzuaga**. Gaztetxean, 22:00etan. Aurretik luntxa egongo da. Diskoaren aurkezpena.
- LAUKIZ • **Triki Ta Ke** eta **Anje Duhalde**. Pilotalekuan.
- LAZKAO • **Les Baton Rouge** eta talde sorpresa. Torrano tabernan, 21:30ean.
- **Gozategi**. 22:30ean.
- LESAKA • **Orquesta Plateria y Carles Flavia**. Zambra aretoan,



Kevin K

Johnny Thundersen semea

Johnny Thunders eta Sylvain Sylvain guraso espiritualak ditu Kevin K New Yorkeko semeak. 70eko hamarkaden amaieran sortu zituen bere lehenengo taldeak Kevinek, eta garai hartan Thundersekin berarekin ere jotzeko aukera izan zuen. Harrezkero, rockaren bigarren maila ezkutuan mugitu izan da beti musikari estatubatuarra, eta Lone Cowboys eta Road Vultures taldeak gidatu ondoren, azken urteotan bakarka aritu da. Oraingoan hiru kontzertu ematera hurbilduko da Euskal Herrira. Asteartean Lazkaoko Torrano tabernan joko du, eta hurrengo astean beste emanaldi pare eskainiko du Bilboko Azkenan eta, ostera ere, Lazkaon —azken hau saio akustikoa izango

00:00etan. 15 euro (edari bat barne).

- OIARTZUN • **Roa** eta **Nano**. Pagoa aretoan, 01:00etan.
- ONDARROA • **Benuts**. Kafe Antzokian, 22:30ean. Doan.
- OÑATI • **Potrotaino**, **Subversion X** eta **Heriotza**. Txosnetan, 22:30ean.
- RODA DE TER (GIRONA) • **Skalariak**. Bac Art-en, 00:00etan.

Larunbata 28

- BERGARA • **Ufestuek**. Pol Pol tabernan.
- BILBO • **Insight**, **Zuldar** eta **Beforce**. Bilborock aretoan, 20:00etan. 3 / 5 euro.
- **Inadaptats**, **Selektah Kolektiboa** eta beste talde bat. Uribarri auzoan, 23:30ean.
- **Tontxu** eta **Desechos**. Areatzan, 22:00etan.

- DEBA • **Tapia eta Leturia**. Plazan, 00:00etan.
- DONOSTIA • **Chico**. Etxekalten.
- **Diego Paque**. Kandela aretoan, 23:30ean. Flamenkoa.
- EIBAR • **Sally** eta **Escarmiento**. Gaztetxean, 19:00etan.
- ELGOIBAR • **EH Sukarra**. Gaztetxean, 22:30etan.
- ELIZONDO • **Borrokari**, **Disorderers** eta **Pateando Porkeria**. Nekazalpunk jaialdian, 23:00etan.
- EULTZ • **Urtz** eta **Iratxo**. 23:30ean.
- HENDAIA • **Antxeta** irratien jaia: **Kabul**, **Izaera**, **Djak** (Erramun Zuzuarregi, Fermin Muguruza, Galder Izagirre), **Bertsolariak** (Amets Arzallus, Sustrai Kolina, Egoitz Zelaia), **Fermin Muguruzaren bideo berriaren aurkezpena**.... Kanttu ostatuan, 19:00etan.
- IRURA • **Akelarre**. Plazan, 00:00etan.
- LAUDIO • **Parasma** eta **Ileon**.

Igandea 29

- ARETXABALETA • **Kepa Junkera**. Plazan, 20:30ean.
- BERGARA • **Primal Fear** eta **Rage**. Jam aretoan, 19:30ean. 20 euro.
- GASTEIZ • **Estopa**. Buesa Arena kiroldegian.
- IRUÑ • **Dying Fetus**, **Monstrosity**, **Houwitser** eta **Intervalle Bizzare**. Tunk! aretoan, 21:30ean. 15 / 17 euro. AEBetako death-metal eta grindcore taldeak.
- LESAKA • **Gozategi**. Zambra aretoan, 19:00etan.
- OÑATI • **Malevaje**. Plazan, 23:00etan.

Astelehena 30

- DONOSTIA • **Bryan Ferry**. Kursaleko auditorioan, 21:00etan.
- **Strength To Maintain** eta **Pledge Alliance**. Mogambo aretoan (Trintxerpen), 20:30ean.
- LAZKAO • **Travoltas**. Torrano tabernan, 21:30ean. 6 euro.

Asteartea 1

- LAZKAO • **Kevin K**. Torrano tabernan, 21:30ean.



Standstill Hardcore irekia Bilbon

The ionic spell lehendabiziko disko luzearekin, Kataluniako hardcore mugimenduko lehenengo lerroan jarri ondoren, Standstill taldeak aurrerapauso ikaragarria egin du *Memories collector* disko berriarekin. Core etiketari bizkarra eman gabe, kataluniarrek ireki egin dute beren soinuaren esparrua eta

lan berrian tronpetak, biolontxeloak eta beste tresna batzuk entzun daitezke gitarra, baxu eta baterien ondoan. Gaur Bilboko Bilborock aretoan izango da Standstill, eta zuzenean diskoan bezain indartsu eta gogotsu aritzen den baieztatzeko aukera izango dugu. Aurretik, Same Old, Aina eta At The Drive In taldeen ildoan mugitzen den taldea, ariko da.

bide ertzean

**MAITE
OUT**

disko berria !!



hotsak.com